



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

GALBAHE-E1 HIZKUNTZ TESTA

Euskara mailaren neurria
D eta B eredueta 7-8 urteko haurrentzat

(OHO-ko 2.maila)

GIDA LIBURUA

**2. EDIZIOA
PUNTUAZIO BERRIAK**

.361:37

A

26

Euskara Zerbitzua
Glotodidaktika-lanak



GLOTODIDAKTIKA LANAK-26



© Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Wellington Dukearen kalea, 2 – 01011. Gasteiz. Euskal Herria.

Egileak: Ibon Olaziregi eta Josu Sierra.

Testeko marrazkien egilea: Antton Dueso.

I.S.B.N.: 84-7542-952-1

Legezko Gordailua: VI-94/91

Lehenengo Argitaraldia: 1986ko Uztaila.

Bigarren Argitaraldia: 1991ko Martxoa.

Inprimatzailea: Gráficas Santamaría, S.A. Vitoria-Gasteiz.
Becolarra, 4 – Pabellón 15-A – (Ali-Gobeo).
01010 – Vitoria

Ibon Olaziregi eta Josu Sierra

GALBAHE-E1 HIZKUNTZ TESTA

Euskara mailaren neurria
D eta B eredueta 7-8 urteko haurrentzat
(OHO-ko 2.maila)

GIDA LIBURUA



GASTEIZ, 1991

EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA



AURKIBIDEA

TESTAREN DATU TEKNIKOAK	9
APLIKAZIO ARAUAK	13
ZUZENKETA ARAUAK	17
AZKEN PUNTUAZIOAK	23
PUNTUAZIO TIPIFIKATUEN TAULAK.....	24

OSAGARRIAK:

ZUZENKETA MOLDEAK



TESTAREN DATU TEKNIKOAK

Izena:

Galbahe-E1 hizkuntz testa: euskara mailaren neurria

Eskalak:

Galbahe izeneko hizkuntz testak hauexek dira:

Galbahe-E1 (Euskara 1.eskala) OHO-ko 2.maila. B eta D ereduak (7-8 urte).

Galbahe-E2 (Euskara 2.eskala) OHO-ko 5.maila. B eta D ereduak. (10-11 urte).

Galbahe-C1 (Gaztelania 1.eskala) OHO-ko 2.maila (7-8 urte).

Galbahe-C2 (Gaztelania 2.eskala) OHO-ko 5.maila (10-11 urte).

Materiala:

Test bakoitza honako materialez osatzen da:

- GIDA LIBURUA eta zuzenketa moldeak
- HAURREN KOADERNOTXOAK (puntuazio orriarekin)

Jatorria:

Testa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntz Politikarako Idazkaritzak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eragindako E.I.F.E. (Euskararen Irakaskuntza-Faktoreen Eragina) izeneko ikerketarako prestatu zen (1984). Geroztik EIFE 3 azterlan berriaren araberrako puntuazioak ezarri ditugu (1988).

Prestatzaileak:

I. Olaziregi, eta J. Sierra, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailekoak.

Tratamendu Informatikoa:

Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarte (E.J.I.E.)

Beste laguntzak:

Gure eskerrik beroenak testa aurrera ateratzen lagundu duten estatistikari, inkestagile eta abarri.

Aplikazioa:

Testaren froga batzuk taldeka aplikatzekoak dira; beste batzuk banaka.

Aplikazio denbora ez da zehazki mugatua. Halere, esan daiteke taldekako frogek lan efektiboko 10' inguru irauten dutela eta banakakoek 5 bat minutu haur bakoitzeko.

Lagina:

Testa normatibizatzeke EIFE 3 azterlanaren lagina hartu da oinarri: D ereduko 404 haur 101 gelatan banatuak eta B ereduko 395 haur 100 gelatan banatuak, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko ikastetxe publiko, pribatu eta ikastoletan. Pasaketa 1988ko Martxo-Apiriletan egin zen.

Testen egokitasuna:

1988an lortutako emaitzen arabera honako datuak eman daitezke. Kontuan hartu behar da D eta B ereduetako puntuazioak ez direla konparagarriak ponderazio diferenteak bait dituzte.

	D eredua	B eredua
Sujetuak:	404	395
Puntuazioen batezbestekoa:	705.7	1.030
Puntuazioen desbiderapena:	116.9	332.9
Fidagarritasuna:	0.72	0.89

Fidagarritasuna bi erdien metodoaz kalkulatu zen eta beraz testaren barne koherentziaren indize bat da.

Erizpide batekiko baliotasuna Haur bakoitzaren puntuazioa eta irakaslearen iritzia korrelazionatu dira.

r= 0.46 0.56

Frogek korrelazio positiboak dituzte beren artean, baina ez oso handiak. Beraz badirudi gaitasun beraren (hizkuntzaren) aspektu desberdinak neurtzen dituztela.

Puntuazio orokorra:

Puntuazio Zuzenen ponderazioa, froga bakoitzak duen bariazio koefizientearen arabera egin da*. Azken ponderazioak hauexek dira:

$$\begin{aligned} D \text{ EREDUKO PUNTUAZIO OROKORRA} &= \\ &= AU1 * 7.1 + AU2 * 21.4 + AU3 * 32.4 + MI1 * 12.3 + MI2 * 3.8 \end{aligned}$$

$$\begin{aligned} B \text{ EREDUKO PUNTUAZIO OROKORRA} &= \\ &= AU1 * 17.4 + AU2 * 34.6 + AU3 * 49.8 + MI1 * 45.1 + MI2 * 6.8 \end{aligned}$$

Konparagarritasuna:

Test hau (Galbahe-E1) eta serie bereko besteen (E2, C1, C2) puntuazio tipifikatuak ez dira konparagarriak, poblazio desberdinen arabera bait dira. D eta B ereduak puntuazio tipifikatuak ere ez dira konparagarriak arrazoi berarengatik. Azpifrogen puntuazio zuzenek konparaziorako bide egokiagoa ematen dute.

Frogen xedeak eta deskribapena:

Test honek hizkuntzaren bi trebetasun oinarritzko aztertzen ditu: Ahozkoaren Ulermena, eta Mintzamena.

AHOZKOAREN ULERMENA izeneko frogek neurtu nahi dute haurrak zer gaitasun duen ahozko mezu bat dagokion irudiarekin lotzeko.

Ahozkoaren Ulermena I-ean hiztegia neurtzen da batez ere esaldi sinple-sinpleetan. Froga oso erraza da, eta haurrak erantzuteko mekanika ikasteko balio du.

Ahozkoaren Ulermena II-n ere perpaus nahiko errazak aurki daitezke hiztegia piska bat zailtzen delarik eta III-ean, berriz, erlazio sintaktiko eta kontzeptual zailagoak agertzen dira.

MINTZAMENean haurren ahozko ekarpena neurtzen da. Mintzamena I-ek haurrarekin lehen kontaktu pertsonala egiteko balio du. Hiztegi eta egitura sinpleak neurtzen ditu. Mintzamena II-n haurrak istorio bat kontatzean erabiltzen duen hizkuntzaren kalitatea eta zehaztasuna ebaluatzen da.

* Ikus M.A. Iztuetaren formula honako liburu honetan: AJURIA, IBARRA, SIERRA, «E.A.B.H.E.M. Euskara Maila neurtzeko testa». Eusko Jaurlaritzak, Glotodidaktika-lanak 16, Gasteiz 1984, 43. or.

GALBAHE-E1 hizkuntz testak, eskola giroan egiten diren beste testek bezalaxe, ez ditu hizkuntz gaitasun guztiak neurtzen. Ahozkoaren Ulermen eta Mintzameneko frogetan neurtzen dena, beraz, ezin da, besterik gabe, hizkuntz gaitasun "orokor" edo "erabatekoa" bezala interpretatu, baizik eskola giroan landu eta neurtu den gaitasun (edo trebetasun multzo) bezala batez ere, bere ezaugarri eta muga guztiekin.

APLIKAZIO ARAUAK

OSO GARRANTZITSUA DA ARAUOK ZEHAZKI ERRESPETATZEA

HAURREN ARTEAN TARTEA UTZI BEHAR DA,
KOPIATZERIK EGON EZ DADIN

HASTEKO ESAN:

Mahai gainean arkatz bat eta goma bat bakarrik utzi itzazue.

Orain paper batzuk banatuko dizkizuet eta jolasak egingo ditugu. (TESTAK BANATU). Lehen lehenik, izena etabar idatzi (LAGUNDU). Gero arkatza mahai gainean utzi nik esan arte. Jolas hauek, politik eta errazak dira. Ikusiko duzue.

Ederki! Pasa lehenengo orria eta doblatu koadernotxo.

AHOZKOAREN ULERMENA. ADIBIDEAK

Ikusten dituzue marrazki horiek? Goian lau dituzue lerro batean (ERAKUTSI). Horiekin hasiko gara. Jolasa hau da:

Nik gauza bat esango dut eta zuek gauza horren benetako marrazkia aurkitu behar duzue, lau horien artean. Aurkitzen duzuenean, «x» bat egin goiko koadrotxoan (ERAKUTSI).

Goazen proba bat egitera. Gauza bat esango dut eta zuek «x» bat egin benetako marrazkian. Entzun!

Hau arraina da

Aurkitu duzue? Ederki! «x» bat egiozue goiko koadrotxoan.

(DENEK ONGI EGITEN DUTELA BEGIRATU)

Orain hurrengo lerroan, bigarrena:

Mutila korrika doa

Zein da bere marrazkia?

Ederki! Jar ezazue «x» bat. Ulertu duzue? Ba orain zuek bakarrik egingo duzue. Pasa orria... doblatu koadernotxoa eta 4. orrialdean geldituko gara. Hemen 10 lerro ditugu. Lerro bakoitzean gauza bat esango dut eta zuek marrazkia aurkitu beharko duzue. Bai?

OHARRAK:

- HAU EZ DA ABIADURAZKO TEST BAT. DENEK ERANTZUTEKO ADINBA-
TEKO DENBORA EMAN BEHAR DA. AZPITEST HONETAN (AU1), AHOL-
KU GISA, ESALDI BAT ETA BESTEAREN ARTEAN, 4-5 SEGUNDUTAKO
TARTEA UTZ DAITEKE, HAUREK ERANTZUN DEZATEN.

AHOZKOAREN ULERMENA I (AU1)

Hastera goaz (ASTIRO ETA ARGI IRAKUR)

- 1- *Lehenengo lerroa . Hau gorpila da.*
- 2- *Bigarren lerroa. Hau iturria da.*
- 3- *Hirugarren lerroa. Hau ilargia da.*
- 4- *Laugarrena Hau sukaldea da.*
- 5- *Bostgarrena Hau leihoa da.*
- 6- *Seigarrena Hau ahatea da.*
- 7- *Zazpigarrena Mahaia borobila da.*
- 8- *Zortzigarrena Jon lodia da.*
- 9- *Bederatzigarrena. Txakurra ihesi doa.*
- 10- *Hamargarrena. Etxetik irten da.*

AHOZKOAREN ULERMENA II (AU2)

Ederki!. Koadernoari buelta eman, eta 5. orrian geldituko gara. Sistema berdinez jarraituko dugu, lehen bezala.

ESALDIEN ARTEKO GUTXIGORA BEHERAKO TARTEA: 4-5 seg.

- 1- *Lehenengo lerroa . Bildotsa da.*
- 2- *Bigarren lerroa. Adarra da.*
- 3- *Hirugarren lerroa. Aizkora da.*
- 4- *Laugarrena Oso apain jantzi da.*
- 5- *Bostgarrena Gonatik heldu dio.*
- 6- *Seigarrena Ura tantaka erortzen da.*
- 7- *Zazpigarrena Besapean darama ogia.*
- 8- *Zortzigarrena Panpina kendu diote.*
- 9- *Bederatzigarrena. Ladriloen bila doa.*
- 10- *Hamargarrena. Orratza galdu zaie.*

AHOZKOAREN ULERMENA III (AU3)

Orain orria pasatu, koadernotxoa doblatu eta 6.orrian gelditu. Berdin-berdin jarraituko dugu, e! Adi egon! Jolas hau piska bat zailagoa da eta. Entzun!.

ESALDIEN ARTEKO GUTXIGORA BEHERAKO TARTEA: 5-6 seg.

- 1- *Lehenengo lerroa . Behia ez da zezena bezain haundia.*
- 2- *Bigarren lerroa. . . . Eskua sutan ipintzen badu erre egingo da.*
- 3- *Hirugarren lerroa. . . . Jaikitzeke ordua bada ere, ez du batere gogorik.*
- 4- *Laugarrena Kokodrilo handia hil du txikiak.*
- 5- *Bostgarrena Kantatzen ez duen txoria bestearen aurrean dago.*
- 6- *Seigarrena Gora heldu ondoren, motxilarekin jarraitzen du.*
- 7- *Zazpigarrena Hartu duen erlojua itzul diezaion nahi du amak.*
- 8- *Zortzigarrena Ez da oinetakoen kaja ageri.*
- 9- *Bederatzigarrena. . . . Bizikleta erosi berria hondatu bazaio ere, berdin dio*
- 10- *Hamargarrena. . . . Ardiak, azkenean, astoa aurreratzea lortu du.*

MINTZAMENA

OHARRAK:

- **MINTZAMENA** BANAKA PASATZEKO DA. FROGA HAU APLIKATZEKO TOKI EGOKI BAT AUKERATZEA GOMENDATZEN DA: BESTE JENDERIK GABEKOA, NAHIKO ISILA, ATSEGIN SAMARRA... ETAB.
- MINTZAMENEZKO FROGA PASATZEN HASI BAINO LEHEN KOMENI DA HAURRARI HURBILTZEKO ZENBAIT GALDERA EGITEA, BATEZ ERE PASATZAILEA EZEZAGUNA BAZAIO. MINTZAMENA I-EKO LEHEN GALDERAK ADIBIDEZ HORRETARAKO DIRA (Nola duzu izena?, Nongoa zara?).
- MINTZAMEN FROGAREN HASIERAN IKASLEAREN IZENA ERE GRABATZEA KOMENI DA

MINTZAMENA I (MI1)

Etorri! Eseri hemen! (HURBILKETA GALDERAK)

ERANTZUN ZUZENAK .

- 0- Nola duzu izena?..... (Ez da puntuatzen)
- 1- Nongoa zara?.....(---**KOA**)

Ederki! Begira ze marrazki politak ditugun hemen. Goazen ikustera.

- 2- Zer da hau? (ZALDIA)
- 3- » » » ? (ARRAULTZEA)
- 4- » » » ? (KAIOLA)
- 5- » » » ? (SUDURRA)
- 6- » » » ? (PLATERA)
- 7- Non dago katua?..... (OHEAN)
- 8- Norena da txakurra?.... (NESKARENA, NESKA HONENA...)
- 9- Nork apurtu du ontzia? . (MUTILAK, MUTIL HONEK, HONEK...)
- 10- Zertan ari da mutila?... (HORTZAK/HAGINAK... GARBITZEN)

MINTZAMENA II (MI2)

Ederki! Zuri ipuinak gustatzen zaizkizu, ez? Ba begira, hemen duzu bat, oso polita. Lehenengo begira marrazkiak eta gero bakoitzean zer gertatzen den kontatzen hasi.

Zuk ipuina kontatuko duzu eta aparato honetan grabatuko dugu. Bai?. Goazen probatzera. Esan zure izena. (IZENA GRABATU). Oso ondo.

Euskaraz txukun eta lasai hitzegin, zuk ondo dakizun moduan. Ez duzu nahitanahiez batuan hitz egin beharrik.

Historia honela doa (EZKERRETIK ESKUBIRA LERROZ LERRO ETA GOITIK BEHERA SEINALATU)

Tira ba, lehenbizi begiratu marrazkiak (SEGUNDU BATZUK UTZI) eta gero ipuina konta iezadazu.

OHARRAK:

- SEGUNDO BATZUK UTZI BEHAR ZAIZKIO HAURRARI IRUDIAK BEGIRATZEKO, HISTORIATXOAREN ZENTZU OROKORRAZ JABETU DADIN.
- HAURRA GAIZKI HASIKO BALITZ, ALEGIA, NARRAZIOA EGIN BEHARRERAN DESKRIPZIOA EGITEN, EDO MARRAZKIAK LOTURARIK GABE KOMENTATZEN, EDO ORDENA TXARREAN, EDO HIZKUNTZA OSO NORMATIBOA EGIN NAHIAN MANTSOEGI ETA TXARTO HITZ EGITEN ETABAR, ORDUAN, GELDI ARAZI ETA BERRIRO AZALDU GOXO-GOXO NOLA EGIN BEHAR DUEN.

ZUZENKETA ARAUAK

AHOZKOAREN ULERMENA I, II, ETA III.

Froga hauek zuzentzeko dagozkien **zuzenketa moldeak** ipini behar dira erantzun orriaren gainean, frogaren siglak eta puntuazio zuzenaren koadrotxoak zuloetatik ikusten direlarik. Asmatutako itemak kontatzen dira eta puntu bana ematen zaie bakoitzeko.

Froga bakoitzaren puntuazio zuzena (P.Z.) 0 eta 10 artekoa da.

Puntuazio zuzena, beraz, orriaren behe aldean ipiniko da eskubitara, horretarako dauden koadrotxoetan.

MINTZAMENA I

"Zero" galdera ez da puntuatzen. Beste galderetan izen bat edo deklinabide kasu bat, edo aditz-izenki bat ongi erabili behar du. Galderen ondoan daude espero daitezkeen erantzun zuzenak. Horietatik aparte ere besteren bat edo beste izan daiteke agian onartzeko modukoa. Erantzun zuzen bakoitzeko puntu bat emango zaio, eta eskubiko koadrotxoetan apuntatuko da (Horretarako haurraren koadernoan pasatzaileak edukitzea komeni da, haurrari beste bat erakutsiaz).

Puntuazio zuzena asmatutakoen batuketa da, 0 eta 10 artekoa.

MINTZAMENA II

Froga hau Adierazpen baremoaz puntuatzen da (ikus 18-19.or.). Puntuatu beharreko unitatea marrazki bakoitzari dagokion ekarpena da (beraz sei aldiz aplikatu beharko da baremoa froga honetan).

Baremoak bi parametro lotzen ditu bereziki: **zuzentasun gramatikala** eta **adierazpenaren kalitatea**. Bi erizpide horiek eta beste osagarriren batekin hamar kategoriako eskala sortzen da. Eskala horren zabaltasunagatik oso muturreko hizkuntz gaitasunak ebalua daitezke, jaiotzatiko hiztunetatik bigarren hizkuntza eskuratzen ari direnetaraino.

Bai edukin, bai gramatika aldetik zuzena den mezuari 8 puntu dagozkie normalean. Bederatzia (9) eta hamarra (10) zuzentasunetik gorako ezaugarri batzuk dituzten mezuentzat dira.

Taularen behe alderago, 4 puntuak huts nabarmenen muga suposatzen dute.

Beraz, jeneralizatuz esan daiteke jaiotzatik edo oso goizetik euskaldun direnen ekarpenak 4 eta 10 puntuen artean ibiliko direla normalean, eta agian maizago 6 eta 9 puntuen artean. Jaiotzatiko hiztunengan hutsune handiak ez bait dira oso ohizko (ikus HUTS GRAMATIKAL HANDIAK, 21.or.) Adierazpen arloko hutsuneak, aldiz, ez dira hain arraroak.

Ordea, etxetik euskara sendoa ez dakartenentzat errazago da hutsune gramatikal handietan erortzea.

Bestalde, 10-11 urteko hiztun jatorrek, normala denez, 7-8 urtekoek baino hutsune gutxiago dituzte eta hauek baino aberastasun gehiago darabiltzate.

Froga honen puntuazio gorena 60koa da.

Baremoak, puntuazio zuzen bat emateaz gain, zuzentzailearen hausnarketa lan bat eskatzen eta bideratzen du haurren ahozko eta idatzizko ekarpenen inguruan.

ADIERAZPEN BAREMOA

	EKARPENAREN DESKRIBAPENA	PUNTUAK
ELEMENTU	<ul style="list-style-type: none"> - MEZU GRAMATIKALKI ZUZENA - EKINTZA NAGUSIA ONGI ADIERAZIA ... - ETA BI EDO GEHIAGO ELEMENTU ABERASGARRI (HITZAK, ESALDIAK, EKINTZAK...) 	10
EXTRAK	<ul style="list-style-type: none"> - MEZU GRAMATIKALKI ZUZENA ... - EKINTZA NAGUSIA ONGI ADIERAZIA - ETA ELEMENTU ABERASGARRI BAT 	9
ZUZENTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> - MEZU GRAMATIKALKI ZUZENA - EKINTZA NAGUSIA ONGI ADIERAZIA 	8

HUTSUNE	- MEZU IA ZUZENA: HUTS GRAMATIKAL TXIKI BAT - EKINTZA NAGUSIA ONGI ADIERAZIA	7
	- MEZU IA ZUZENA: ESPRESIO POBREKO EDO MAKAL SAMAR LOTUTAKO ESALDIK (ERREPIKAPENAK ETAB.) - EKINTZA NAGUSIA ONGI ADIERAZIA	6
TXIKIAK	- BI EDO GEHIAGO HUTS GRAMATIKAL TXIKI DITUEN MEZUA - EKINTZA NAGUSIA ONGI ADIERAZIA	5

HUTSUNE	- HUTS GRAMATIKAL HANDI BAT DUEN MEZUA - EDO EKINTZA NAGUSIA GAIZKI ADIERAZIA	4
	- HUTS GRAMATIKAL HANDI BI EDO GEHIAGO - EDO EKINTZA NAGUSIRIK ADIERAZTEN EZ DUEN MEZUA (MEZUA GRAMATIKALKI ZUZENA IZAN ARREN)	3
HANDIAK	- HUTS GRAMATIKAL HANDIAK - ETA EKINTZA NAGUSIRIK ADIERAZTEN EZ DUEN MEZUA	2
	- HITZ SOLTEAK	1
	- MEZURIK EZA	0

ADIERAZPEN BAREMOARI BURUZKO XEHETASUNAK

EKINTZA NAGUSIA

Marraskiko ekintza nagusia, bertan agertzen den gertakizun edo egoera inportanteena da. Haurrek modu piska bat diferentziaz interpreta dezakete ekintza nagusia. Interpretazio horiek zilegiak izan daitezke eta ez dute ekarri behar ezinbestean puntuazio baxuago bat.

Adibidez: «Amak botila du dendan eta umeak dirua ematen dio» (MI2,2. irud.)

Ez da erraza, beraz, aurrez jakitea zein diren haurrak gutxienez adierazi behar dituen ekintza nagusiak. Irudi batzutan, bestalde, bat baino gehiago ere izan daitezke aukeran.

Nolanahi ere, eta zenbait aukera ahazteko arriskuaz, hona hemen gutxienezko ekintza nagusien zerrendatxo bat.

GUTXIENEZKO EKINTZA NAGUSIAK

Mintzamena II

1. Dirua eman edo hartu edo dendara bidali
2. Botila edo ura edo... erosi edo eman
3. Norbait topatu, edo ikusi edo norbaitek esan
4. Botila erori edo apurtu
5. Botila bat ikusi ibaian
6. Arrain bat egon botilan

EKINTZA NAGUSIA GAIZKI ADIERAZIA

Honelakoetan ekintza nagusiari nola hala erreferentzia egiten bazaio ere modu eskasean edo osatu gabean egiten zaio, eta ez da argi gelditzen.

Adibidez: «Joan dira eta botila kras» (MI2, 4. irud.)
«Botila hartu du» (MI2, 2. irud.)

EKINTZA NAGUSIRIK ADIERAZI EZ

Ekintza nagusia adierazi gabe gelditzen da batzutan, haurrak esaten amaitu ez duelako edo garrantzitsua ez den ekintzaren bat bakarrik adierazi duelako.

Adibidez: «Biak bizikletan doaz» (MI2, 4. irud.)
«Aita aspertuta geratu da» (MI2, 6. irud.)

HUTS GRAMATIKALAK

Usario eta arau desberdin askotxo dagoenez ez da batere erraza modu objetibo batean zehaztea zein diren eta zer garrantzi duten huts gramatikalek. Horregatik aukeratu dugu erizpide malgu eta neurri batean subjeti-boa. Malgua dela diogu, okertzat hartu ohi diren lokalismoak huts txikitzat jotzen direlako, entzuten diren inguruetan behintzat, eta beraz baremoa ezin delako berdin aplikatu Gernikan edo Oiartzunen. Subjetiboa da, neurri batean, xehetasunak eta arauak hemen irakurri arren, azken finean test pasatzaileak hartu behar dituelako erabakiak piska bat pentsatu ondoren.

HUTS GRAMATIKAL TXIKIAK

Lokalismoak, arruntkeriak, errakuntza pertsonalak, edo jarduerazkoak (hizketakoak) izaten dira. Jatorrizko hiztunengan eta haurren hizkuntzan maiz samar aurki daitezke, eta baita ere, nola ez, bigarren hizkuntzaren hiztunengan.

Esate baterako:

Lokalismo teorikoki okerrak edo hizkera normalean oso hedatutako faltak
«Esaten dio ia eramaten **badu**» (MI2, 3. irud.)
«Bizikletan eroaten **dotzo**» (MI2, 4. irud.)

- * Errakuntza pertsonalak edo noizbehinkakoak, txukun gelditu ez diren zuzenketak etab.
«Eman dio erosi botila» (MI2, 2. irud.)
- * Sujetuaren edo beste elementu baten elipsi gogorrak, esaldiaren ulermena kolokan ipintzen dutenean
«Ematen dio dirua eta ematen dio botila» (MI2, 2. irud.)

HUTS GRAMATIKAL HANDIAK

Huts handiek hizkuntzaren, kasu honetan euskararen, oinarrizko egiturei erasotzen diete, seguraski jatorrizko hiztunentzat onargarri gertatuko ez liratekeelarik.

Maiz samar aurki daitezke bigarren hizkuntza baten hiztunengan, eta noizbehinka haurrengan.

Esate baterako:

- * Deklinabide mailako falta gogorrak
«Aitak ehun **pezetak** eman dizkio» (NOR Mugagabea) (MI2, 1. irud.)
«**Aita mutila** ehun pezeta **eman du**» (NORK eta NORI sintagmak eta aditza) (MI2, 1. irud.)
«Gero **etxean** joaten da» (NORA) (MI2, 6. irud.)
- * Aditz jokatugabea (jokatu behar denean, noski) edo gaizki jokatua (lokalismoen kasua salbu)
«Eta gero **joan etxera...**» (MI2, 6. irud.)
- * Komuntadura falta gogorrak
«**Harritutak** gelditu dira» (MI2, 6. irud.)
«Gizonak **esan zuen mutilari**» (MI2, 1. irud.)
- * Euskaraz arruntak diren hitzak ere erdaraz ematea
«**Konpratu** du tarro bat **letxe**» (MI2, 2. irud.)

ESPRESIO POBREKO EDO GAIZKI LOTUTAKO ESALDIAK

Ez-gramatikaltasunean erori gabe ere zehaztasun falta duten esaldiak izaten dira, erakusleetara etabarretara jotzen bait dute,

Adibidez:

«Orduan **zera** erortzen da» (MI2, 4. irud.)
«**Honek** esaten dio...» (MI2, 3. irud.)

edota beren artean makal samar lotuak, batipat errepikatze ugariengatik.

Adibidez:

«Eta	Eta	Eta
«Hemen	Hemen	Hemen
«Orduan	Orduan	Orduan
«Gero	Gero	Gero

Behin zigortuko da segidako **hiru irudi** lotura berberaz elkartzeagatik.

EZ DIRA HUTS KONTSIDERATZEN

- *Euskalkietako ahoskerak eta doinuerak
- *Euskalkietako forma jator eta zabalduak
- «Neska-mutilak botila bat ikusi dute» (MI2, 5. irud.)
- «Botilia jausi **jako**» (MI2, 4. irud.)
- «Bizikletan etorri **dan** mutilak...» (MI2, 3. irud.)

ELEMENTU ABERASGARRIAK

Haurrak, ekintza nagusia zehaztasunez eta gramatikalki zuzen adierazteaz gainera, hizketaren kalitate handiagoa dakarten hitzak, esaerak, perpau-sak, esaten baditu **edo** irudiko ekintzaren bat gehiago adierazten badu (gutxienezkoaz gain), horiek elementu aberasgarritzat hartuko dira.

Adibidez:

- «Aitak ehun pezeta ematen dizkio mutilari **botila bat ur erosteko**» (MI2, 1. irud.)
- «... **bizikletadunak** botila dauka» (MI2, 3. irud.)
- «... neska **jausteko arriskuan dago**» (MI2, 4. irud.)
- «**aldapa batean behera doazela** botila erori zaie...» (MI2, 4. irud.)
- «Botila bat ikusten dute **eta hartu egiten dute**» (MI2, 5. irud.)

AZKEN PUNTUAZIOAK

Bi eratako informazioa ematen dizu testak:

1. FROGEN PERFILA:

Haurren puntuazio zuzenak markatuko ditugu horretarako prestatutako grafikoan eta batetik besterako marra batez lotu (ikus Haurren koadernotxoaren azken orrialdea).

Perfilak, informazio «kualitatiboa» eskaintzen du. Zein frogatan dabilen batezbestekotik gora edo behera hain zuzen ere, edo eta zein trebetasunetan huts egin duen... Kontuan hartu ohiz kanpoko zenbait puntuazio, grafikotik kanpora koka daitezkeela.

«Oharretan» kontuan hartu beharreko datuak aipa daitezke: *«oso nerbioso egon da Mintzamenean»*, *«ez du mekanika harrapatu»*... etab.

2. PUNTUAZIO OROKORRA:

Lehendabizi, **taulak** (ikus 25-27 or.) hartu eta froga bakoitzean lortutako **puntuazio zuzena, puntuazio tipifikatura** pasa. Gero, Puntuazio Tipifikatuaren batuketa eginik, PUNTUAZIO OROKORRA lortzen da.

Puntuazio Orokorra interpretatzeko aski da ondoko grafikoetan dagokion EUSKARA MAILA begiratzea. Horrela lagin orijinaleko poblazioarekin konparatzen dugu haur bakoitza.

PUNTUAZIO TIPIFIKATUEN TAULAK (B EREDUA)

Froga bakoitzaren puntuazio zuzena puntuazio tipifikatu bihurtzeko taula hauetan begiratu behar da.

AU1		AU2		AU3		MI1	
P.Z.	PT.	P.Z.	PT.	P.Z.	PT.	P.Z.	PT.
1	17	1	35	1	50	1	45
2	35	2	69	2	100	2	90
3	52	3	104	3	149	3	135
4	70	4	133	4	199	4	180
5	87	5	173	5	249	5	226
6	104	6	208	6	299	6	271
7	122	7	242	7	349	7	316
8	139	8	277	8	398	8	361
9	157	9	311	9	448	9	406
10	174	10	346	10	498	10	451

MI2

P.Z.	PT.				
1	7	20	136	41	279
2	14	21	143	42	286
3	20	22	150	43	292
4	27	23	156	44	299
5	34	24	163	45	306
6	41	25	170	46	313
7	48	26	177	47	320
8	54	27	184	48	326
9	61	28	190	49	333
10	68	29	197	50	340
11	75	30	204	51	347
12	82	31	211	52	354
13	88	32	218	53	360
14	95	33	224	54	367
15	102	34	231	55	374
16	109	35	238	56	381
17	116	36	245	57	388
18	122	37	252	58	394
19	129	38	258	59	401
		39	265	60	408
		40	272		

**B EREDUKO
EUSKARA MAILA**

puntuazio orokorra

GOIKOA	1680
ERDIKO GOIKOA	1350
ERDIKO BEHEKOA	1030
BEHEKOA	680
	350

PUNTUAZIO TIPIFIKATUEN TAULAK (D EREDUA)

Froga bakoitzaren puntuazio zuzena puntuazio tipifikatu bihurtzeko taula hauetan begiratu behar da.

AU1		AU2		AU3		MI1	
P.Z.	PT.	P.Z.	PT.	P.Z.	PT.	P.Z.	PT.
1	7	1	21	1	32	1	12
2	14	2	43	2	65	2	25
3	21	3	64	3	97	3	34
4	28	4	86	4	130	4	49
5	36	5	107	5	162	5	62
6	43	6	128	6	194	6	74
7	50	7	150	7	227	7	86
8	57	8	171	8	259	8	98
9	64	9	193	9	292	9	111
10	71	10	214	10	324	10	123

MI2

P.Z.	PT.				
1	4	20	76	41	156
2	8	21	80	42	160
3	11	22	84	43	163
4	15	23	87	44	167
5	19	24	91	45	171
6	23	25	95	46	175
7	27	26	99	47	179
8	30	27	103	48	182
9	34	28	106	49	186
10	38	29	110	50	190
11	42	30	114	51	194
12	46	31	118	52	198
13	49	32	122	53	201
14	53	33	125	54	205
15	57	34	129	55	209
16	61	35	133	56	213
17	65	36	137	57	217
18	68	37	141	58	220
19	72	38	144	59	224
		39	149	60	228
		40	152		

D EREDUKO EUSKARA MAILA	puntuazio orokorra
GOIKOA	940
ERDIKO GOIKOA	820
ERDIKO BEHEKOA	700
BEHEKOA	590
	470

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

EUSKARA ZERBITZUAREN ARGITALPENAK

1. EUSKARA-ZERBITZUAREN ARGITALPENAK

1.1. Glotodidaktika-lanak

a) **Hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko gaiak:**

- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: TOPIKOAK ETA METODOLOGIAK. *N. Gardner* (1).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: GRAMATIKA ARIKETAK. *J.A. Mujika* (2).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: MAILAKETA GRAMATIKALA. *I. Olaziregi* (3).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: ZENBAIT ARTIKULU (5).
- HIZKUNTZ JOLASAK. *M. Sainz - I. Olaziregi* (15).
- BAKARKA 1. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia* (18).
- BAKARKA 2. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia* (22).
- BAKARKA 3. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia* (29).
- TREBATZEN. OHO.ko GOIKO ZIKLORAKO HIZKUNTZ ARIKETAK. *M. Sainz* (23).
- EUSKALKIZ EUSKALKI. *R.M. Pagola* (19).
- EUSKARAREN OINARRIZKO HIZTEGIA. MAIZTASUN ETA PRESTASUN AZTERKETA. *J.M. Etxebarria. J.A. Mujika* (31).
- OINARRIZKO HITZAK. EUSKARAZKO HITZ ERABILGARRIENAK. *I. Olaziregi* (34).

b) **Bideo-gidoiak/Txotxongiloak/Musika**

- HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ I. *I.M. de Lezea-Kukubiltxo* (6).
- HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ II. *I.M. de Lezea* (9).
- ESKOLARAKO IPUINAK ETA TXOTXONGILOAK. *I.M. de Lezea* (14).
- IPUIN ZAHAR ETA BERRIAK. *L. Iriondo* (10).
- KONTU KONTARI. *L. Iriondo* (20).
- AMONAREN IPUINAK. *E. Genua* (12).
- IPUIN GEHIAGO. *A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada* (13).
- JOLASEAN. *I. Urbieta* (11).
- MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN. *I. Urbieta* (21).

OHARRA: Liburuen eskuin aldeko zenbakitxoek argitalpen-sorta bakoitzeko korrelazio-zenbakiak dira.

c) Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)

- EUSKALTZAINDIAK BATASUNERAKO ESKAINI DITUEN ERABAKIAK (8).
- EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA. PROGRAMA (7).
- EGA. 1988-89ko AZTERKETAK (35).

d) Hizkuntz testak eta ebaluazioak

- EABHEM. EUSKARA-MAILA NEURTZEKO TESTA (D ereduko eskolaurreako). *G. Ajuria - I. Ibarra - J. Sierra* (16).
- GALBAHE E1 HIZKUNTZ TESTA. (B eta D ereduetako OHO-ko 2. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (26).
- GALBAHE E2 HIZKUNTZ TESTA. (B eta D ereduetako OHO-ko 5. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (25).
- GALBAHE C1 y C2. TESTS DE LENGUA (Gaztelaniazko testak OHO-ko 2. eta 5. mailarako). *J. Sierra - I. Olaziregi* (27).
- ZORTZI-A HIZKUNTZ TESTA (A ereduko OHO-ko. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (28).
- PIR-5 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako eskolaurre-amaierarako). *I. Olaziregi - I. Sierra* (30).
- EIFE 1. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA (euskaraz-gaztelaniaz-frantsesez-ingelese). *J. Gabiña - R. Gorostidi - R. Iruretagoiena - I. Olaziregi - J. Sierra* (H.U.I.S.-H.P.I.N.).
- EIFE 2. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. *J. Sierra - I. Olaziregi* (33).
- EIFE 3. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. *J. Sierra - I. Olaziregi* (36).

1.2. Hizkuntz prestakuntza

- BIZKAIERAREN IDAZTARAUAK. DEKLINABIDEA ETA ADITZA. *A. Arejita - J.M. Irazola - J. Uriarte* (1).
- EUSKAL ADITZA: BIZKAIERA ETA BATUA. *J.M. Irazola* (2).
- BIZKAIERAZKO JOSKERA. *A. Arejita - J.M. Etxebarria - J.M. Irazola - J. Uriarte* (4).
- HEZKUNTZ ADMINISTRAZIOKO BEHIN-BEHINEKO HIZTEGIA. *I. Artola - J.M. Berasategi - G. Nazabal - I. Olaziregi* (3).

1.3. Zabalkunde-lanak

a) Euskal Ikasmaterialgintza (EIMA programa)

- IKASMATERIAL IDATZIEN BILDUMA 1990. *M.K. Kamino* (22).
- IKUS-ENTZUNEZKO IKASMATERIALEN BILDUMA 1990. *M. Usabiaga* (23).
- EIMA. EKINTZA-PLANA. AZALPEN BATERABILDUA 1986 (14).
- EIMA. LAGUNTZA-DEIALDIEN EMAITZAK 1980-85 (10).
- HEZKUNTZ SOFTWAREAREN BILDUMA 1990-91. *M. Usabiaga* (27).

b) Irakaslegoaren Alfabetatze-Euskalduntzea (IRALE programa)

- IRALE. AURKEZPEN-TXOSTENA 1991-92 (26).

c) Normalizazio Legearen Garapena (NOLEGA programa)

- IKASTETXEEN BARNE-ERROTULAZIORAKO ESKULIBURUA. *I. Artola - J.M. Berasategi - I. Muruaga* (15).
- EUSKAL GIROTZE-EGONALDIETARAKO ESKULIBURUA. *R.M. Ardanza - I. Artola - J.M. Berasategi - L.M. Landaluze - A. Mujika - I. Muruaga* (16).
- ESKOLA-ANTZERKIA (18).
- URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETA. LAN SARITUEN BILDUMA 1986, 1987, 1988, 1989, 1990.
- GOAZEN BARNETEGIRA (bideoa).
- EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK (bideoa).

d) Beste idazki batzuk

- IRALE (azalpen txostentxoak lau hizkuntzatan) (15).
- EGA (azalpen txostentxoak lau hizkuntzatan) (6).
- EUSKARA GAUR EGUNEKO HEZKUNTZA ARAUBIDEAN (20).
- EUSKAL IRAKASKUNTZA: 10 URTE (24).
- EUSKAL IRAKASKUNTZAREN GARAPEN BIDEA (25).









Galbahe-EI hizkuntz lekua
BK15030358


AHOZKOAREN ULERMENA I [REDACTED] (AU1)





P.Z.





GALBAHE – E1 (Euskara 1. eskala)

OHO-ko 2.mailako B eta D ereduetarako
(7-8 urte)

IZENA

DATA

ADINA

IKASTETXEA

IKASMAILA


HERRIA

AMAHIZKUNTZA

**2. EDIZIOA
PUNTUAZIO BERRIAK**

© Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Euskara Zerbitzua. Glotodidaktika-lanak 26.
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Wellington dukearen kalea.
01011 – Gasteiz, Euskal Herria.
I.S.B.N.: 84-7542-952-1
Legezko Gordailua: VI-94/91
Lehen Argitaraldia: 1986ko Uztaila.
Bigarren Argitaraldia: 1991ko Martxoa.

AHOZKOAREN ULERMENA – ADIBIDEAK





1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				



P.Z.

--	--



1



2





3






4



5




6






7




8



9



10



P.Z.

--	--

AHOZKOAREN ULERMENA III



(AU3)

1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				


P.Z.

--	--

MINTZAMENA I (MI1)



1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	



P.Z.

--	--

(MINTZAMENA II-REN TRANSKRIPZIOA)

(1)

(2)



(3)

(4)

(5)

(6)

MINTZAMENA II (MI2)



1	
2	
3	
4	
5	
6	

P.Z.

--	--

GALBAHE - E1 (B EREDUA)

IZENA..... DATA.....
 ADINA..... IKASTETXEA.....
 IKASMAILA..... HERRIA.....
 AMAHIZKUNTZA.....

FROGEN PERFILA (puntuazio zuzenak)

MAILA	TIPIFIKAZIOA	AU 1	AU 2	AU 3	MI 1	MI 2	
GOIKOA	70					45	
	69					44	
	68					43	
	67		10			42	
	66			8		41	
	65				10	40	
	64					39	
	63					38	
	62		9		7	9	37
	61						36
60						35	
ERDIKO GOIKOA	59		8		8	34	
	58					33	
	57	10		6		32	
	56					31	
	55					30	
	54				7	29	
	53			7	5	28	
	52					27	
	51					26	
	50		9		6		25
ERDIKO BEHEKOA	49		6			24	
	48			4		23	
	47				5	22	
	46					21	
	45					20	
	44	8	5	3		19	
	43				4	17-18	
	42					16	
	41					15	
	40		4				14
BEHEKOA	39			2	3	13	
	38					12	
	37	7				11	
	36					10	
	35		3	1	2	9	
	34					8	
	33					7	
	32				1	6	
	31	6				5	
	30		2				4

PUNTUAZIO OROKORRA

Frogak	Punt. Zuzena	Punt. Tipifikatua
AHOZKOAREN ULERMENA I		
AHOZKOAREN ULERMENA II		
AHOZKOAREN ULERMENA III		
MINTZAMENA I		
MINTZAMENA II		

PUNTUAZIO OROKORRA
 (Tipifikatuen batuketara)

EUSKARA MAILA

OHARRAK:

GALBAHE - E1 (D EREDUA)

IZENA..... DATA.....
 ADINA..... IKASTETXEA.....
 IKASMAILA..... HERRIA.....
 AMAHIZKUNTZA.....

FROGEN PERFILA (puntuazio zuzenak)

MAILA	TIPIFIKAZIOA	AU 1	AU 2	AU 3	MI 1	MI 2
GOIKO A	70					54
	69					53
	68			10		52
	67					51
	66					50
	65					49
	64					-
	63			10	9	48
	62					47
	61					46
ERDIKO GOIKO A	59					45
	58			8		44
	57				10	43
	56		9			-
	55					42
	54					41
	53	10		7		40
	52					39
	51					38
	50			8		37
ERDIKO BEHEKO A	49					-
	48			6		36
	47				9	35
	46					34
	45					33
	44		7			32
	43			5		31
	42					-
	41					30
	40					29
BEHEKO A	39			4		28
	38	9	6		8	27
	37					26
	36					25
	35					-
	34			3		24
	33					23
	32		5			22
	31					21
	30					20

PUNTUAZIO OROKORRA

Frogak	Punt. Zuzena	Punt. Tipifikatua
AHOZKOAREN ULERMENA I		
AHOZKOAREN ULERMENA II		
AHOZKOAREN ULERMENA III		
MINTZAMENA I		
MINTZAMENA II		
PUNTUAZIO OROKORRA (Tipifikatuen batuketara)		

EUSKARA MAILA

OHARRAK:

